Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Mari Azkarate Araukua Kansion

Bermeo

Bizkaia (1924)



Aurkibidea

Biografia



Frantzunatxetan jaio arren, bi urte zituela Aurrekoetxeara joan ziren eta bertan bizi izan da beti. "Kansion" ezizena familiako baporetik jaso zuen. Umetatik ikasi behar izan zuen gogor behar egiten: 11 neba-arrebatatik 5en egin zuten aurrera; ama aña (inudea) eta neskatila zuen eta Marik 10 urte zituela ito zen Mundaka parean; aita, arrantzalea, handik 7 urtetara hil zen. Gerra Zibilean, familia banatuta egon zen eta bera osaba-izekoekin egon zen etxean zituzten gudariekin batera; ahizpa Frantzian izan zuen eta neba itsas armadan. 19 urte zituela, "Casa del niño"n hasi zen beharrean eta hantxe aritu zen ezkondu arte. Bere lehengusina Pilar Araukua "Kansion"egaz batera egin genion elkarrizketa.

Zintak

BRM-110

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2012-04-24
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

BRM-111

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2012-04-24
- **Iraupena**: 72 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Bilbao Telletxea, Arantza

Pasarteak

1. 'Kansion' ezizena

- **Erref**: BRM-110/001
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:56

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:
Mari Azkarate Araukua. Jendeak arazoak ditu bigarren abizenarekin. Kansion ezizena. Ama Frantziara joan zen inude ("aiña") eta kanta bat atera zioten; kanta elebidunaren zati bat kantatzen du.

2. Basora egurretan eta portura ikatzetan

- **Erref**: BRM-110/003
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:02:12. **Bukatu**: 00:04:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:
Basora joaten ziren su-egur bila. Abar-sortak egin eta buruan ekartzen zituzten, bigungarria ('sorkia'), ipinita. Portura ere joaten ziren baldeaz harrikatz hondarrak biltzera. Behin, basoaren jabeak harrapatu eta aizkorak eta denak kendu zizkieten. Matxitxako aldeko basoetara joan ohi ziren egurretara.

3. Ama barkutik lehorrera ikatza "igaroten"

- **Erref**: BRM-110/004
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:04:40. **Bukatu**: 00:06:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:
Amak, beste emakume askok bezala, harrikatza garraiatzen ('igaroten') egiten zuen barkuetatik kaira. Otzara ikatzez zamatu, buruan hartu, eta ikaztegira eramaten zuten. Arraina 'igaroten' ere jarduten zuen "neskatilla" (portuko langile) gisa.

4. "Casa del Niño"n, orduko haurtzaindegian laneana

- **Erref**: BRM-110/005
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:06:00. **Bukatu**: 00:08:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:
Ama ez zen fabrikan ibili. Mari bera ere ez, noiz edo noiz jardun zuen arren antxoari burua kentzen. "Casa del Niño"n neskame ibili zen bost urtez umeak zaintzen (garai hartako haurtzaindegia). Bazkaria eta askaria egiten zuten.

Pozik jartzen ziren ama bila zetorrenean. Orain zaharrentzat prestatuta dago lokal hura, Eguneko Zentro bihurtuta. 19 ogerleko (duro. 95 pezeta) irabazten zuen hilean. Ez zioten batere kotizatu. Gustura ibiltzen zen umetxoekin. 24 urterekin utzi zuen lana, ezkondu zenean.

5. Haizete batek Frantxunatxeta aldea hondatu

- **Erref**: BRM-110/006
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:08:24. **Bukatu**: 00:09:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Jaioteguna. Frantxunatxetan jaio zen. Hainbat tailer zegoen inguru hartan. Haizete batek hondatu zuen auzoa eta gaur egun ez dago lantegirik. Bi urterekin etorri zen Aurrekoetxea kalera.

6. Ama itsasoan ito 1934ko Iraultzaren egunetan

- **Erref**: BRM-110/007
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:09:47. **Bukatu**: 00:11:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
"1934ko Iraultza" gertatu zenean, ez zegoen ogirik Bermeon eta Mariren ama, lagun batzuekin batera, Gernikara joan zen janari bila. Erosketak egin eta lagun taldetxo bat bildu zen itzulera baporean egiteko. Mundakako parean zurrunbilo batek hartu, urperatu eta hainbat ito ziren, tartean ama. Marik hamar urte zituen. Pilarrek kontatzen du bere aitak nola aurkitu zituen gorpuak. Zoritxarraren berri izan zelarik, Mariren etxean bizitako giroa.

7. Igerian ez zekien bakarra salbatu

- **Erref**: BRM-110/009
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:12:17. **Bukatu**: 00:14:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Hondoratu zen barkuan pertsona bat zetorren igerian ez zekiena eta bera salbatu zen bakarrik, piper-txorizero zaku bati helduta. Erru handiena batelaren jabeak izan ei zuen, hainbeste jende hartzeagatik hain barku txikian. Mundakan gurutzea dago itotakoen omenez, ezbeharra gertatu zen lekuaren aurrean. Itsaso bizia zegoen.

8. Ahizpa Frantziara ihesi eta bera etxean

- **Erref**: BRM-110/010
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:14:00. **Bukatu**: 00:14:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Gerra aurretxoan (1934an) izan zen itsasoko ezbeharra. Mariren ahizpa ebakuatu egin zuten Frantziara. Berak ere maleta prest izan zuen baina ez daki zer gertatu zen, ez zen agertu eurak eraman behar zituen barkua.

9. Arraina baserriko gauzen truke

- **Erref**: BRM-110/021
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:29:42. **Bukatu**: 00:31:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Dendetan erosketak apuntatu egiten ziren, eta gizonek soldata kobratzen zutenean, ("partila egindakoan") ordaintzen ziren zorrak. Trukerik ez zen egiten dendan. Baserritarrekin bai inoiz: arraina baserriko gauzen truke. Bermeotik kamioiak irteten ziren herrietara arraina saltzera, herrietan ez zen arrandegirik izaten eta. Oinez ere joaten ziren emakumeak arrainarekin.

10. Bermeotik Bilbora oinez

- **Erref**: BRM-110/022
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:31:08. **Bukatu**: 00:32:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Dirurik ez zegoenez, Bilbora oinez joaten zen jendea askotan, Solluben zehar. Lehengo zaharrak lan asko egindakoak dira. Marik bere amaren zoritxarra dakar berriz gogora; zer burubide erabiliko ote zuen itotzear zegoenean, zurrunbiloren mende.

11. Familian denak nazionalistak, osaba errepublikanoaizan ezik

- **Erref**: BRM-110/024
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:33:53. **Bukatu**: 00:36:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Familian denak izan dira nazionalistak, osaba errepublikanoa izan ezik. Honek gura izaten zuen emazteak ere berak bezala bota zezan, baina emazteak ez zuen amore ematen eta nazionalista botatzen zuen. Nortasun handiko emakumea zen. Mariren amak ikurrintxoa erabiltzen zuen arropan josita.

12. "Putas, putas son... las que están en el balcón"

- **Erref**: BRM-110/031
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:44:06. **Bukatu**: 00:45:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Cara al Sol kantatzen jartzen zituzten Mari-eta kalean. Pilarrek gogoan du kalean nola ibiltzen zen falangista taldea kalean eta zer kantatzen zieten leihotik begira geratzen zitzaizkienei: "Putas, putas son... las que están en el balcón".

13. Soldadu italiarren arropa garbitzen

- **Erref**: BRM-110/033
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:47:25. **Bukatu**: 00:48:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:
Pilarren amak-eta soldadu italiarren arropa garbitzen jardun zuten denboralditxo batez janari truke. Herriko jendeak salatu egin zituzten nazionalistak zirelako. Ondo portatu ei ziren italiarrak.

14. Almikaraino frankistei ihesi, eta etxera berriz

- **Erref**: BRM-110/036
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:51:55. **Bukatu**: 00:53:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Mari-eta, frankistak herrian sartzean zeudenean, ihesi abiatu ziren, baina Almikara heldu zirenean, gizon baten esanei jaramon eginez, atzera egin zuten. Gudariek utzitako atun lata bat jan zuten etxeratutakoan. Etxean egondako hainbat gudari bisitan etorri izan dira harrezkero. "Mari la Valiente" esaten zioten.

15. Mariren nebak Matxitxakoko batailan parte hartu zuen

- **Erref**: BRM-110/038
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:56:05. **Bukatu**: 00:57:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Mariren nebak Matxitxakoko batailan parte hartu zuen hamabost urterekin. Omenaldia egin diote duela gutxi. Orduko ia denak hilda daude, anaia da geratzen den bakarrenetarikoa. Ahizpa Frantzian ebakuatuta izan zuen Marik.

16. Estraperloko azukrea

- **Erref**: BRM-111/001
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:43

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Bilbora joan zerbaitetan, eta estraperloko azukrea erosi zuen; etxera heldu eta konturatu gatza saldu ziotela.

17. Irrati handia ezin pasatu

- **Erref**: BRM-111/002
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:00:43. **Bukatu**: 00:02:33

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Itsasoa » Arrantza motak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia

Laburpena:
Hiztunen aitak hurbilean ibiltzen ziren arrantzan, eta ez zegoen estraperlorik haien artean. Geroago, Dakarretik eta, ekartzen zituzten gauzak, irratia esate baterako, baina arazoa izaten zuten portuko karabineroarekin.

18. "Mamá yo quiero ser..." kanta

- **Erref**: BRM-111/005
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 00:04:45. **Bukatu**: 00:05:17

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Guardia de asalto-en kantuaren hasiera.

19. Itsas azalean koipea eta gomazko fardoakk

- **Erref**: BRM-111/010
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 00:14:14. **Bukatu**: 00:14:53

Gaia(k):

- Itsasoa

Laburpena:
Arrantzaleek itsasoan koipea eta gomazko fardoak aurkitzen zituzten. Horiek salduta, diru apur bat ateratzen zuten. Mariren etxean gela bat izan zuten gomaz beteta; Pilarrenean, arraina frijitzeko erabiltzen zen itsasoko koipea.

20. Nola prestatu itsukia

- **Erref**: BRM-111/011
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:14:53. **Bukatu**: 00:16:59

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Lehen, itsukia saltsan jaten zen; orain, frijiturik ere jaten dute. Sukaldean arraina nola prestatzen duten azaltzen dute.

21. Etxerik etxe ordua ematen

- **Erref**: BRM-111/013
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:18:34. **Bukatu**: 00:19:28

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:
Hamabi urterekin hasten ziren itsasora. Ontziko gaztea etxerik etxe joaten zen bezperan, itsasoratzeko ordua emateko ontziko gizon guztiei.

22. Kafetera betea hustu aguazilak

- **Erref**: BRM-111/014
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:19:28. **Bukatu**: 00:20:18

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Egunen batean, eskaileran ezustekoren bat izan zuen goizaldean Mariren nebak. Kafetera eramaten zuten itsasora. Inoiz, herriko aguazil bermeotar baserritarrak goizaldean itsasora zihoazenei kafeteran kolpea eman eta kaferik gabe utzi izan zituen arrantzaleak.

23. Pentsioa ostu etxeko eskaileretan

- **Erref**: BRM-111/015
- **Iraupena**: 0:03:47. **Hasi**: 00:20:18. **Bukatu**: 00:24:05

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:
Banketxean kobratutako pentsioa lapurtu zioten Mariri etxeko eskaileretan. Ez zuen berreskuratu ezer.

24. Belodun etorkinak

- **Erref**: BRM-111/017
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:24:54. **Bukatu**: 00:25:49

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:
Ateko eskekoari ematen zioten jana edo ahal zutena. Baina gaur egun, beloa daramatenek baldintza onetan bizi nahi dute, eta gainera ez dute garbi jokatzen.

25. Etxeko komuna eta bainua

- **Erref**: BRM-111/018
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:25:49. **Bukatu**: 00:26:49

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Etxean ez zen dutxarik egoten; komuna beti. Etxe batzuetan, eskaileran egoten zen denentzako komuna. Euren etxeetako komuna kutxa antzeko egurrezko gauza bat izaten zen.

26. "Arenadurie"

- **Erref**: BRM-111/019
- **Iraupena**: 0:00:11. **Hasi**: 00:26:49. **Bukatu**: 00:27:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Hareaz eta lixibaz garbitzen ziren etxeko soroa edo egurrezko komuna.

27. Zorriak

- **Erref**: BRM-111/022
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:28:24. **Bukatu**: 00:29:19

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Ez zuten zorririk izaten. Batzuek arkakusoak izaten zituzten; edo zikinagatik edo zaharrak zirelako...

28. Gaurko gazteen izarak

- **Erref**: BRM-111/023
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:29:19. **Bukatu**: 00:31:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Gaurko gazteek garbigailua izan arren, ez dute ganorarik arropa garbitzeko. Nola lehortzen duten arropa kontatzen dute Pilarrek eta Marik.

29. Eskuz josita barneko arropa

- **Erref**: BRM-111/024
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:31:40. **Bukatu**: 00:34:08

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Etxean josten zuten barneko arropa. Ez zuten prakarik erabiltzen; orain ere ez, baina osasun edo garbitasun arazoengatik.

30. Txiza dariela

- **Erref**: BRM-111/025
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:34:08. **Bukatu**: 00:35:45

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Txizari eutsi ezinik dabiltzan inguruko emakumeekin gertatutako pasadizoak kontatzen dituzte.

31. Toallatxoetatik konpresara

- **Erref**: BRM-111/026
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:35:45. **Bukatu**: 00:37:08

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Gaur egun kulero bereziak eta konpresak daude txizaren arazoarentzat. Lehen, aldiz, toallatxoak erabiltzen ziren.

32. Neska ala mutila izango?

- **Erref**: BRM-111/035
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:53:21. **Bukatu**: 00:53:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Haurdunaldietan, ez zekiten neska ala mutila izango zuten; batzuetan aurpegira begiratuta, mantxaren bat ikusita edo, iragartzen zuen baten batek zer izango zen.

33. Bainua itsasoan

- **Erref**: BRM-111/037
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:54:27. **Bukatu**: 00:55:05

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Batzuk portura, besteak hondartzara edo haitzetara. Aritzatxura, portura, Tonpoira edo Frantzunatxetara joaten ziren. Behin bultza egin zioten Pilarri kaian, eta estualdia igaro zuen, ez baitzekien igeri egiten.

34. Bainujantzia aberatsek

- **Erref**: BRM-111/038
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:55:05. **Bukatu**: 00:56:38

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Aberatsek baino ez zuten bainujantzia; gonak hanka artean bilduta eramaten zituzten. Pilarri bainujantzia oparitu ziotenean, bakarra zen, eta mutilak bera ikustera hurbiltzen ziren.

35. Neskak neskatara haitzetara

- **Erref**: BRM-111/039
- **Iraupena**: 0:00:29. **Hasi**: 00:56:38. **Bukatu**: 00:57:07

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Mutilak alde batetik eta neskak bestetik ibiltzen ziren haitzetan edo hondartzan. Orduan ere, baten bat joaten zen mutilarekin.

36. Lapatan eta maguriotan

- **Erref**: BRM-111/040
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:57:07. **Bukatu**: 00:58:12

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk
- Natura » Fauna » Itsas fauna

Laburpena:
Pilar lapatan eta maguriotan ibilitakoa da. Hemengo magurioa kanpokoaren aldean gozoa da jateko.

37. Dantzarako "mesedez"

- **Erref**: BRM-111/041
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:58:12. **Bukatu**: 01:00:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Dantzan egiteko, "mesedez" eskatzen zuten mutilek eta neskek baietz edo ezetz. Mutil batek Pilar jo egin zuen, ezetz esateagatik. Ordaintzeko unea heltzen zenean, alde egiten zuten.

38. San Juan eguneko dantzaldiak

- **Erref**: BRM-111/042
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 01:00:30. **Bukatu**: 01:01:31

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
San Juanetan, San Juanetik Olbizarretara (Orbezarretara) joaten ziren. Handik Bakiora, dantzan egin, eta Bermeorantz. Matxitxako parean jateko hondakinak jan eta Arenera (Arane), han ere dantzan. Azkenik, Bermeoko erromerian amaitzen zuten eguna.

39. Biribilketan gertatutakoak

- **Erref**: BRM-111/043
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 01:01:31. **Bukatu**: 01:03:17

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Aurreskuan ari zirela, zaintiratua egin zioten Mariri; Pilarri zangotraba, eta zapaldu egin zuten, baina egin zion mendekua hanka luzatu zuen mutilari.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-16

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com